

# **FAXISMOA FRANTZIAN: 1918 - 1939**

**Pruden Garzia**

Artikulu honen mamia gai oso eztabaidatu bati heltzea da: faxismoaren garrantzia Frantziako historian. Jarrera klasikoa (edo klasikotzat jo ahal duguna) haren garrantzi eza azpimarratzea izan da; horrela, fenomeno marginaltzat jo izan da, kanpotik ekarria eta sustrairik gabea Frantziako gizartean. Beste zenbait ikerlariren arabera, berriz, faxismoa gizarte frantsesean, ongi eta sakonki erroturiko fenomeno da, funts handiko fenomeno, alegia. Azken urte hauetan egindako ikerketen arabera, badirudi bigarren jarrera hau dela indarra hartzen ari dena. Hala ere, eztabaida inoiz baino biziagoa da, azken urteotako gertakari politikoen harira (joera neofaxisten berragerpen indartsua). Artikulu honetan errepasso orokor bat egiten zaio bai eztabaida historiografikoari, bai Frantziako faxismoaren historiari berari ere, azken honetarako irizpide deskribatzaile bat erabiliz. Ondorioz, egilea bigarren jarreraren aldekotzat agertzen da, nahiz eta iturritzat erabili dituen historialariei zenbait kritika eta ñabardura egin.

Inor gutxik espero zuenean, faxismoarekiko interesa berpiztu egin da ez bakarrik historialari edo ikertzaileen artean, baita gure bizitza arruntean horrenbesteko garrantzia duten masa-komunikabideetan ere. Era guztietako joera faxisten berrindartzea gero eta fenomeno nabariagoa da gure Europako gizartean, eta honek, noski, badu zerikusirik momentu honetan historialarien artean gaiak duen arrakastarekin. Frantzia bereziki, partidu neofaxista baten lotsabako gorakada, hautestontzitan behin eta berriro baietsia, ikerketa eta eztabaida ugarien katalizatzaile bihurtzen ari da.

Koordenatu hauetan kokatu nahiko nuke artikulua honen helburua, hots, Frantzia pil-pilean dagoen fenomeno horren sustrai historikoei buruz informazio xume bat eskaintzea. Ildo honi segituz, bi puntu aztertuko ditut bereziki: batetik, faxismo frantsesean zehar ibilbide ia exahustiboa egin nahi dut, izan diren talde faxista edo faxistantzeko guztien berri laburra emanez; bestetik, gaiak sortu duen eztabaida historiografikoaren berri emango dut, bai iraganean (2. atalean), bai gaur egun ere (4. atalean). Bukaeran kritika pertsonal bat erantsiko dut.

Muga kronologikoei buruz, azpimarra dezadan aukeraketa nahikoa arbitrarioa izan dela, paradajikoa bada ere, konkrezio eta barne-koherentziaren mesederako. Era berean, dezadan ez naizela faxismoaren izaerari buruzko eztabaidatan murgilduko, aldiz, zeuden talde politikoen deskripzioan sakonduko dudala, haien izaera

faxistari buruzko kalifikazioa parentesi artean utziz.

Bibliografiari buruz, guztiz oinarrikoak diren liburuak jasoko ditut soilik. Era berean, autore bat aipatzean uler bedi bibliografian jasotzen den bere liburutik hartutako informazioa dela. Bibliografia espezifikoagoa, liburu horietako edozeinetan aurki daiteke, eta era berean, ikuspegi orokorrakoak, Frantziako historiako edozein esku-liburutan.

---

### **Eztabaida historiografiko klasikoaren berri laburra**

---

Milzà-ri jarraiki, esan genezake sasoiko eztabaida historiografiko/politikoak alboratuz, historialarien artean bi ildo interpretatzaile nagusi izan direla eta, neurri batean, gaur egun ere, segitzen dutela:

- 1) "Frantziako eskola" bezala ezagutzen dena; oinarrian, Renè Remon-ek 1954ean argitaratutako liburuan (*La Droite en France*) agertzen diren tesiei jarraitzen diena; tesi hauek zenbait ñabardura eta aldaketa jaso dute egileak berak egindako 4. argitalpenean (*Las Droites en France*, 1982), baina hasierako funtsari eutsiz.
- 2) Batez ere ikerlari atzerritarrez (ez-frantsesez) osatutako taldea, aurreko taldearen tesiak kritikatzeko dituen, nahiz eta beraien artean diferentzia handiak egon. Talde honen barruan sartzen dira "zaharren" artean Polantzas edo

Nolte, eta gazteagoen artean Sternhell, Soucy edo Milzà.

René Remond-en tesiak, funtsean, puntu hauetan laburbil daitezke:

- a) Frantziako faxismoak ia ez dauka funtsik; bakar-bakarrik Doriot-en PPF-k eduki zuen ganorazko oinarri herritar bat (baina ez gehiegizkoa ere).
- b) **Action Francaise** edo "liga patriotikoak" ez dira faxistak: faxismoaren parafernaliaren imitaztaile hutsak baino ez ziren izan.
- c) Mussolini edo Hitler imitatze saioak guztiz minoritarioak izan ziren.
- d) Frantzian ez zen sekulan "arriku faxista"-rik egon.
- e) Vichy-koa ez zen erregimen faxista izan.
- f) Faktore-multzo zabal batek ezinezko bihurtzen du faxismoaren garaipena Frantzian:

- Lehenengo Mundu-Gerran garai-leen artean egon zen.
- krisialdi ekonomikoaren eragina erlatiboki moderatua izan zen.
- ahulezia demografikoa guztiz sustraitua zegoen.
- bazegoen ezkerreko partidu demokratiko indartsurik.
- eskuina iragaziezina zen faxismoarentzat: Frantziako eskuinak ez zuen Duce bat aldarrikatzen; gehienez Clemanceau edo Poincarè bat.

g) Benetan zegoena "sasoiko izpiritua" zen, izpiritu edo elite honek sasoi hartako zenbait partidu eta mugimendu parafernalia faxistaz kutsatu zuelarik.

Puntu guzti hauek laburbil daitezke esanaz ez direla eskuina eta faxismoa nahastu behar; faxismoa bera, Frantzian, fenomeno marginala da, atzerriko jatorria daukana eta, edonola ere, ezkerreko partiduen artean sortzen dena; Frantzia osoak, eskuineko partiduak barne, tradizio errepublikar eta parlamentariari segitu zion eta talde guztiz marginal batzuk kenduta, ez zen tentaldi faxistan erori.

Jarrera honen aurrez-aurre, ikerlari atzerritarren saioak tesi guzti hauen aurka paratzen dira, berauen punturik garrantzitsuenak ukatuz; funtsean diotena ondorengo da:

- a) Faxismoaren sustrai ideologikoak Frantzian daude (beraz, ez da kanpotik ekarritako ideologia), eta jite kontserbadore eta eskuindar nabarmena dauka (beraz, ez da berez ezkerri dagokion zerbait).
- b) Faxismo frantsesa funts handikoa da (beraz, ez da marginala), Frantzian bertan ditu bere sustraiak (beraz, ez da Italiakoaren edo Alemaniakoaren kopia) eta gutxienez, alderdi kontserbadoreekin kidetasun handiak dauka (beraz, faxismoaren eta eskuinaren muga ez da hain garbia).

Bi puntu hauek irmoki finkatuta daude eta historialari askoren artean erabat onartuta (eta ez bakarrik "atzerritarren taldea" bezala sailkatu

dugunen artean). Hala ere, badira oraindik ere oso diferentzia handiak euren artean, eta azken bi tesi hauek onartuta ere, eztabaida-puntuak oso sakonak dira. Momentu honetan bereziki (azken laupabost urteez ari naiz) eztabaida historiografiko garrantzitsua dago Frantziako faxismoaren jite, ezaugarri eta izaerari buruz. Artikulu honetan, eztabaida honen berri eman asmoz, hiru historialariren jarrerak hartuko ditut oinarritzat: Robert Soucy, Zeev Sternhell eta Pierre Milzà (ikus bibliografia).

Baina bakoitzaren jarreraren azalpen kritiko bat egiteak urrunegi eramango gintuzke, beharbada, oinarritzko zenbait puntu argitzeke utzirik. Hori dela eta, nahiago izan dut Frantziako faxismoaren ikuspegi orokor bat ematea, eztabaida historiografikoarekin jarraitzea azken atalerako utzirik. Ikuspegi orokor honi ekiteko, erizpide orokor bezala faxistatzat edo faxistantzekotzat har daitezkeen talde guztiak sartzea erabaki dut, jakina, bere izaera faxista askotan eztabaidagarria (eta eztabaidatua) delarik. Beraz, kontutan har bedi agertuko diren zenbait talderen izaera faxista/ez-faxista dela eztabaida ugarien iturria hain zuzen ere. Deskribapen honetarako, batez ere Milzà eta Soucy-ren lanak segituko ditut.

---

### **Frantziako faxismoaren ikuspegi orokorra**

---

Nahiz eta esan daitezkeen faxismoa Frantzian eten erabatekorik gabeko fenomeno historiko jarraia dela, aztertuko dugun aldia bi olatu

nagusitan sailka dezakegu, bata hogeigarreneko hamarkadan eta bigarrena hogeitamargarreneko hamarkadan. Bi olatuetan bada abagadune bereziki gatazkatsua (1924-25) eta 1932-34) zeintzuetan faxismoak sekulako indarra erakutsi bati zuen, zenbaiten ustez (Soucy) boterea eskuratzeko posibilitate erreala izan zuelarik. Jakina, faxistak, ez lehenengoan, ez bigarrenean, ez zuten boterea eskuratu, gerraraino itxaron egin behar izan zutelarik gobernuan sartzeko, baina hau gure artikulutik kanpo gelditzen da. Hauxe da erabiliko dugun oinarritzko kronologia:

- 1928-1924: Gerraren bukaera ostean, krisialdi ekonomikoak eta gatazka sozialak gora egiten dute etengabe, 1924-3an "Cartel de Gauche" delakoa (sozialdemokratak gehi erradikalak) boterera iristen delarik.
- 1924-26: Gatazka gogorren sasoia, faxistak indar handia hartu eta boterea eskuratzera abiatzen direlarik (Soucy).
- 1926: Poincaré gobernuburu, moneta-krisi estabilizatzea lortzen duelarik; partidu faxistak moteldu egiten dira.
- 1928: Eskuinaren garaipena hauteskundeetan, eta berarekin batera faxisten ezabapen ia erabatekoa.
- 1932: Krisialdi ekonomikoak sortutako giro gatazkatsuen ondorioz, "Cartel de Gauches"-en garaipen berria hauteskundeetan.

- 1932-34: Mugimendu faxisten berrantolaketa eta gorakada.
- 1934: Otsailaren 6-ko "journè"-a: eskuindar eta faxisten manifestazioa Parlamentu aurrean, indarrez hartzen saiatzen direlarik. Soucy-rentzat, benetako estatu-kolpe huts egina.
- 1936: "arrisku faxista"-k eraginda, Fronte Popularraren garaipena hauteskundeetan eta partidu eta "liga" faxistaren eta faxistaberen ilegalizazioa.
- 1939: Bigarren Mundu-Gerra hasten da.

Kronologia honen arabera, mugimendu faxista, faxistantzeko edo faxistabera guztiak deskribitzen saiatuko naiz, beti ere azpimarratuz euren balizko izaera faxistak eztabaida biziak sortzen dituela kasu gehienetan.

## 1.- Lehenengo olatua: hogeigarreneko hamarkada

Atal honetan batez ere Soucy-ren tesiak segituko ditut.

Hamarkada honetako Frantzia argi eta garbi faxista diren hiru mugimendu ditugu (Soucy): **Action Francaise**, **Jeneusses Patriotes** eta **Le Faisceau**. Hauez gain, partidu politiko ez diren baina sekulako oinarri sozial zabala daukaten beste mugimendu batzuk daude. Berez faxistak izan gabe, ezaugarri faxista ugari erakusten dituzte, eta beraietatik sortzen eta elikatzen dira garbiki mugimendu faxistak. Zerrenda exhaustibo bat egin

gabe, aipa dezadan: **Ligue des patriotes** delakoa, 1882an fundatua eta Paul Deroudèle-k gidatua, **Ligue antisemite** delakoa, **Ligue de defense catholique** delakoa, **Federation national catholique** delakoa (azken biak Edouard Castelnau jeneralaren lehendakaritzapean, 1.800.000 bazkide izatera iritsi zirelarik) eta **Ligue National Republicane** delakoa, Millerand Frantziako lehendakari ohiak gidatua, errepublikarra eta eskuindarra. "Liga" guzti hauek eskuindarrak dira, eta beraietatik sortzen dira talde faxistak. Beraz, faxista "hutsak" gehiago ala gutxiago izanda ere, garbi dago "liga" faxistabera hauek oinarri herritar zabal eta sendoa zutela.

Baina (Soucy-ri jarraiki) bakarrik argi eta garbi faxistak diren mugimenduetan sakonduko dugu:

### Action Francaise

1989an fundatua, laster Charles Maurras-en partidu bilakatu zen. Errealista (hau da, erregezalea eta Frantziako erregearen aldekoa), antisemita eta katolikoa, bere erregezaletasunak luzera Frantziako eskuinaren zatiketa gaindiezina ekarri zuen, eta bere katolikotasunak, berehalako arrakasta ziurtatu bazion ere, luzera zabalkunde handia izatea galera zion Frantzia laikoan. Hauteskunde-mailan ez zuen sekula arrakasta handirik lortu (beti % 5aren azpitik ibili zen) eta militante-kopuru eskasa izan zuen (gehienez 30.000 1924ean). Baina bere garrantzia moralki eta intelektualki askoz ere handiagoa da. Frantziako eskuinaren erreferentzia etengabea izan zen

hamarkada luzetan, Europa mailan ere bere garrantzia maila ideologikoan izugarrikoa delarik, bereziki Espainian. Batere zalantzarik gabe esan daiteke Maurras dela XX. mendeko eskuinaren ideologo garrantzitsuenetako bat, bai Frantzian baita munduan ere.

Bere ezaugarri nagusien artean honakoak daude: tradizionalismoa, antiparlamentarismoa, antiliberalismoa eta pesimismo antropologikoa; nazionalista muturreraino, armadaren defendatzaile amorratu eta itsua zen. Bortxaren erabilera (hitzez eta egitez) ontzat jotzen zuen (baita erabili ere) eta "ordua iristean" estatu-kolpe baten beharra aldarrikatzen zuen.

Sozialki, burges txikiek osatua zen (dendari, errentero, lurjabe txiki zein handi...) nobleziaren partaidetza nabarmena zelarik. Ugazaba eta langileen arteko harremanetan paternalismoa defenditzen zuen, eta harreman baketsuen beharra azpimarratu.

Bereziki garrantzitsua zen haren gazte-erakundea, "camelots du roi" izena zeukana eta bere metodo bortxatiengatik aski ezaguna; Parisko Quartier Latin zen bere feudoa; ikasle unibertsitariz osatua, makila zein pistola erabiltzeko gertu zegoen jendea zen.

1924 arte Frantziako eskuin-muturreko partidu nagusia izan zen, urte horretan talde berriak sortzen hasi zirelarik.

Milzà-rentzat ez da partidu faxista, bere mezuaren muina iraganera

itzultzea bait da; talde faxisten sorburu bezala jokatu zuen etengabe, nahiz eta, berriro diot, Milzà-ri jarraiki, partidu faxista ez den.

Neure aldetik erantsi nahi nuke Espainia eta Hego Euskal Herriko egoera abiapuntutzat hartuta, beharbada irakurle askorentzat lagungarri izan daitekeela esatea puntu askotan falangistekin baino, karlistekin erakusten duela antz handia, eta ondorioz, bere izaera faxista sakonki zehaztu beharrekoa litzatekeela; hau da, ez dago faxismotik urrun, baina ez da faxismo klasiko eta tipikoa.

### **Les Jeneusses Patriotes**

1924ean izan zen fundatua, Pierre Taittinger-en eskutik, "Cartel des Gauches"-en garaipena hauteskundeetan sortutako giroa aprobetxatuz. Hasiera batean **Ligue Des Patriotes**-en barruan fundatu zen, beronen erakunde paramilitar gisa, "camelots du roi"-ak imitatuz. Bere hasierako funtzioa iraultza komunista bati aurre egiteko erakunde armatu defentsiboa izatea zen, baina denboraz gero faxistago bihurtuz joan zen, **Ligue Des Patriotes**-etik independizatu.

Uniformez jantzita ibiltzen ziren (alkandora urdina eta euskal txapela), antolaketa militarra zeukaten, erakusketa militarrek, desfileak, tiro-ariaketak, erromatarren agurra etabar ohizkoak zituztelarik. Goi-burgesiak finantziatua, 100.000 militante izatera iritsi zen (Soucy).

1926an **Ligue Des Patriotes**-etik bereizten da, bere erradikalismoak ilegalizatzeko arriskuan jartzen bait

zuen "liga" bera ere. 1925 eta 1926 bitartean sarri asko aldarrikatu zuen Errepublikak botatzea zuela helburu, parlamentuaren ordezkidura bat ezarri. Soucy-rentzat, argi eta garbi faxistak ziren, baina Milzà-rentzat ez ziren faxistak izatera iritsi.

Bere ideologiari buruz esan dezadan ororen buru antikomunistak zirela, nahiz eta ñabardura ezkertiari batzuk gehitzen saiatu (Soucy-rentzat, demagogia hutsa).

1926tik aurrera oso makaldu ziren, beren diru-iturri nagusia ziren bankari eta industrial handiek abandonatu bait zituzten, nahiz eta formalki desegin ez.

### **Le Faisceau**

1925ean fundatua Georges Valois-en eskutik, **Action Française**-ren baitatik sortu zen, partidu honen pasibitatea eta aktibismo-falta kritikatu. AF-ren militante gogorrenak erakartzen saiatu zen, hau da, Maurras-en hitzezko programa bortxatua praktikan jartzeko gertu zegoen jendea.

Bere izena italiarren "fascio"-ren frantsesezko itzulpena da, beraz, euskaraz "azao" izango litzateke (eta gaztelaniaz "haz"). Bere antolaketa, helburu eta ekitaldiei buruz JPrentzat esandakoak balio digu (hau da, antolaketa militarra bere parafernalia guztiarekin, oinarrizko antikomunismoa, etab...), baina kontutan hartuz hauek aktibista gogoragoak izan zirela eta faxismoaren aldarrikapen garbiak egiten zituztela, hauek faxista hutsak ziren, eta horrela aitortzen zuten.

Bere programa JPena baino ezkertiarra zen, hau da "iraultzaileago" zentzu faxistean, eta orohar faxismoaren aktibismo tipikoa aurrera ateratzen saiatu ziren, nahiz eta arrakasta nahikoa txikia izan. Langileen artean arrakasta lortu nahiak gero eta ezkereragotu zituen, bere iturri ekonomikoetatik apartatuz (hau da, industrialak eta bankariak ziren mantentzen zituztenak, eta hauek bere "iraultzaletasunaz" mesfidatzen hasi ziren), langileen artean arrakastarik izatea lortu gabe. Hemen ere faxismoaren demagogia ezkertiari aipatu behar da, azpimarratuz **Le Faisceau**ren kasuan bereziki garrantzitsua izan zela.

Poincarè-ren gobernu iristean, JPekin bezala, bere finantz iturriak agortu egin ziren, eta 1927rako praktikan desegina zegoen.

Laburpen gisa, Soucy-ri jarraiki, esan daiteke oso azpimarratzekoa dela hiru partidu hauen eite garbiki eskuindarra, nahiz eta faxismoaren demagogia ezkertiari tipikoa erruz erabili, eta honekin batera gobernu botatzeko eta diktadura bat ezartzeko erakusten zuten borondatea. Soucy-rentzat hirurak faxista garbiak dira, eta arrakasta handia lortu zuten, nahiz eta oso abagadune konkretu batean bakarrik (1924-26). Milzà-k berriz, bere makaldadea eta arrakasta eza azpimarratzen ditu, eta lehenengo bien kasuan ukatu egiten du faxistak izatea.

Edonola ere, AFren kasua aparte utzita, 1928rako beste bi taldeak praktikan deseginda zeuden, eta eskuin errepublikarra gobernuan.

## 2.- Bigarren olatua: hogeitamar-garreneko hamarkada

Aurreko atalean batez ere Soucy-ren tesiei segituko badiegu ere, atal honetan Milzà-ren tesiei segituko diegu, hamarkada honetan Frantzian zeuden talde faxista, faxistantzeko edo faxistabera guztien erreposoa eginez. Berriro ere azpimarra dezadan sailkapena Milzà-rena dela eta, beraz, eztabaidagarria eta eztabaidatua. Baina ikerlari honi segituz, bada "nebulosa" zabal bat, zeinetan kokatzen diren era askotako taldeak, kasu gehienetan faxistak baino, faxistantzekoak. Ikustagun.

### Talde faxistantzekoak baina ez faxistak

Sail honen barruan Milzà-k hiru talde sartzen ditu, partidu politiko ez direnak, baizik eta aurreko atalean agertu diren ligen tankerakoak:

- 1) **Federation de contribuants** delakoa: 1928an fundatua Marcel Large-en eskutik, 700.000 bazkide izatera iritsi zen; bere agiri eta aldarrikapenak guztiz antiparlamentarioak eta "apolitikoak" dira; halaber, 1934eko otsailaren 6ko manifestazioan parte hartu zuen.
- 2) "Dorgerismoa" edo "alkondara berdedunak": 1928an Dorgères-ek fundatua (hortik eta erabiltzen zuten alkandora berdetik datorkie izena), batez ere Frantziako Mendebaldeko baserri-tarren artean garatu zen. Bere bazkideak batez ere nekazari txiki antirrepublikarrak eta tradizionalistak ziren, katolikotasunaren baloreen alde eta

errepublika laikoaren aurka mobilizatuak. 1937an 150.000 bazkide izatera iritsi zen. "Eskuadrismoa" (hau da, makilaz edo fusilez armaturiko gizontaldeak "ekintza" bat egitea) sarri asko erabili ohi zuten, baina guzti hau ez da nahikoa (Milzà) faxistak zirela esateko.

- 3) **Union Nationale de Combatants** delakoa: Lehenengo Mundu-Gerrako gudari ohiez osatua, 900.000 bat bazkide zituen. Oinarriko bazkideak eskuindarrak ziren, baina errepublikaren aldekoak; hala ere, zuzendaritza guztiz faxista zen. 1934eko otsailaren 6ko manifestazioan parte hartu zuen, baina Duce bat baino, Clemanceau bat eskatzen zuten, hau da, errepublika gogor bat, "redressement" bat, baina ez diktadura bat.

Beraz, berriro ere ikusten dugu bazegoela faxismoarentzat oinarri herritar sendo bat, nahiz eta Milzà-arentzat oinarri hori, eskuindarra izan arren, ez zen faxista.

### Lex croix-de-Feu

Frantziako eskuineko talderik antolatuen eta sendoen, honekin maila bat igotzen dugu erradikalizazio politikoan, baina oraindik ere ezin dugu faxismoaz hitz egin.

1927an fundatu zen gudari ohien elkarte bezala. 1931an hasten da bere gorakada, La Roeque koronela lehendakaritzara iristean. 1934ean 150.000 bazkide zituen eta 1936an 700.000. Urte honetan disolbatua izan zen, baina partidu politiko bihurtu zen, **Partie**



**Social Francais** izenarekin, eta ziur aski 1939an milioi bat partaide izango zituen. Milzà-rentzat, Frantziako eskuinaren lehen partidu modernoa.

Goitik behera antolakera paramilitarra zeukan, faxismoarekin antz izugarria duelarik antolaketan, tankera orokorrean, buruzagiarekiko mirespenean eta, batez ere, gauez antolatu ohi zuten zuzi-desfile ikusgarrietan. Hala ere, Milzà-rentzat, eskaut katolikoen antz haundiagoa daukate eskadra faxistena baino.

Ideologiari buruz, oinarrian, frantses guztien batasun mistikoa predikatzen zuten, komunismoaren aurka, klase-borrokaren aurka, parlamentu ustelaren aurka eta politikariaren aurka, baina ez zuten benetako programa politiko gorpuzturik.

Azpimarragarriena bere eite tradizional eta kristaua da, honek hurbiltzen duelarik **Action Francaisera** eta Dollfus-en Austriara (Milzà) edo Gil Robles-en **CEDARA** (P.G.I.), faxismotik bereiztuz.

Bere partaidegoa oso-osorik burgeseria eta erdiko klaseak dira; azken orduan bakarrik hasi zen nekazari eta langileak integratzen.

Bere izaera faxista Milzà-k ukatu egiten du; berarentzat La Rocque-k behin eta berriro uko egin zion mugimendua faxistatzeko egin zioten proposamenei eta boterea hauteskundeen bitartez eskuratzeko estrategiatik ez zen aldendu. Horren froga gisa esaten du otsailaren 6ko

manifestazioan parte hartu zutela, bai, baina bloke diferente batean, ibaiaz bestaldean (hau da, Parisko parlamentuaren ondoan pasatzen den Sena ibaiaz bestaldean, zubia pasatu gabe) Parlamentuaren aurkako erasoan parte hartu nahi izan gabe. Milzà-ren hitzetan, ez zuten Rubicon hori pasatu nahi izan.

Laburbilduz, nire ustez, Espainiako **CEDARA**ren antz handia dauka kristaua eta tradizionalista, ezkerretik faxistatzat salatua eta eskuin-muturretik moderatuegi eta koldartzat, bere estrategia politikoa hauteskundeen bidetik pasatzen zelarik, boterea eskuratu arte behintzat; 1939ko gerraren hasierak, hauteskundeak atzeratzean, parentesi artean utzi zuen estrategia honen arrakasta.

### **Garbiki faxistak ziren taldeak**

- 1) **Solidarité Française** delakoa: 1933an fundatua Francois Coty-ren eskutik. Sekula ez zen iritsi 10.000 militante izatera. Coty industrial aberatsa zen, eta urte luzetan era guztietako talde faxista edo faxistantzekoak diruz hornitu zituen, bere talde propioa fundatzea erabaki zuen arte, batez ere gaizkile eta marginatu sozialak ("lumpen"-ak) erabiliz. Milzà-rentzat, faxismo demagogiko eta operetakoa, pailazokeria hutsa ia-ia, eraginik gabea.
- 2) **Partie Franciste** delakoa: 1933an fundatua Bucard-en eskutik. Bucard gudari ohia zen, ia-ia gerra-heroia, gero urte luzetan eskuin-muturrean aritu zena. Neska aberats batekin ezkondu eta gero, bere partidu

propioa fundatu zuen, Coty-k bezala bere militanteak batez ere marginatu eta erdi-gaizkileen artean jasoz. Hala ere, badirudi Coty-ren taldea baino zerbait serioagoa zela, Espainiako Falange-arekin batera italiarrek diruz hornitutako partidua bait zen. Milzà-ren esanetan, Italiako **FASCIO**-ren kopia barregarri xamarra zen, eta Bucard, Duce-ren imitatzaile pailazo xamarra. 1939tik aurrera alemaniarrekin kolaboratu zuten.

3) **Comite Secret d'Action Revolutionnaire** delakoa, **La Cagoule** izenez ezagunagoa: Aftik zetorren zenbait lagunez osatua, talde klandestino eta terrorista zen. Bere helburua Errepublika desestabilizatzea zen atentatu terroristen bitartez (komunistei egozten zitzaizkienak). Hau da, probokadore-talde bat, zenbait hilketa burutu zuena bere kide gehienak atxilotuak izan ziren arte.

4) **Partie Populaire Francais** delakoa: honekin iristen gara Frantzian egon den masa-faxismo bakarrera (Milzà), eta beraz, leku handiagoa emango diogu.

Jacques Doriot-ek fundatu zuen 1936an. Bere momenturik onenean 50.000 partaide izatera iritsi zen. Bere buruzagia, Doriot, lider komunista ohia zen, Saint Denis-eko alkatea izana. 1936an PCF-etik bota zuten eta PPF fundatu zuen ohizko diru-laguntzak zirela medio (zenbait bankari eta industrialenak).

Bere militanteak batez ere gazteak ziren (gudari ohi gutxi), komunismotik etorriak eta langileak portzentaia oso altuan.

Bere ideologia nagusiki antikomunismoaz eta antiparlamentarismoaz osatua zen, baina bakarrik 1940tik aurrera aldarrikatuko dute faxistak direla. Programa ekonomikoa teknokratikoa da, langile eta ugazaba artean elkarlaguntza sustatuz, baina hierarkia errespetatu beharra azpimarratuz. Baina batez ere tradizionalismoa eta nazionalismo barresianoa dira elementu aipagarrienak. 1938tik aurrera arrazismorantz eta katolikotasunerantz jotzen du.

Bere kontraesanik gogorrena izango da alde batetik totalitario eta ultranazionalista bezala agertu nahi izatea, eta bestetik Alemania eta Italiarekiko Frantziaren morrontza onartzea, edo beraiekiko bakezaletasuna aldarrikatzea. Bestalde, antikomunismoaren esparrua La Rocque-k betetzen zuen. Gauzak horrela, gero eta tradizionalista, kontserbadore eta katolikoago bihurtuz joan zen (Doriot Lourdes-era peregrinazioa egitera iritsi zen), bere hasierako oinarri langiletik bereiztuz erdiko klasea bereganatzea lortu gabe. 1939rako pott eginda zegoen guztiz.

### **Beste zenbait talde**

Oraindik ere badira beste zenbait talde faxista, faxistantzeko edo faxistabera, garrantzitsuena Dèat-ek fundatutakoa delarik, eta sozialismoaren esparrutik zetorrena, baina

aipamen hutsa eginda nahikoa da, oso garrantzi gutxi izan bait zuten.

Berriz, bada beste gai bat guztiz garrantzitsua, nahiz eta apenas ez diogun lekurik dedikatuko, eta intelektual faxista edo faxistaberei buruzkoa da. Intelektual faxistabera ugari aurki daitezke 30. etako Frantzian, nahiz eta, beti bezala, bere izaera faxista oso eztabaidatua izan. Adibidez, Sternhell-ek "faxismo izpiritualista" barruan kokatzen dituen intelektual pila bat, Milzà-rentzat "inkonformista" izatetik ez ziren pasatu. Hala ere, guztiak batzen dituen 30.eko hamarkadan demokraziari egiten dioten kritika latz eta errukigabea da; hortik aurrera argi eta garbi faxistak izatera ez ziren guztiak pasatu, batzuk bai ordea, adibidez Drieu La Rochelle edo Brasillach.

Puntu honi buruz Sternhell-en liburuak irakurtzea gomendatuko nuke.

Atal hau bukatzeko, sintesi gisa, Milzà-ren tesi nagusia azaltzea litzateke egokiena: faxismoa baino, Frantzian dagoena da izpiritu "vivhysois" edo faxistabera baten kutsapena, herritarren sektore oso zabaletan. Izpiritu faxistabera hau ez zen benetako partidu faxista indartsu batean gorpuztu, eta ondorioz Frantzian faxismoa ez zen boterera iritsi gerra eta okupazioa iritsi arte. Izpiritu faxistabera sendo eta zabal hau ez gorpuzte, hurrengo atalean tratatuko dugun kausa historiko sorta bati zor zaio. Neure aldetik gehituko nuke Frantziako faxismoaren historia "rendez-vous" huts egin baten historia

izan zela, eta horretan datzala Espainiako faxismoarekiko desberdintasun nagusia. Finean, Espainian nolabaiteko faxismoak boterera iristea lortu zuen (erregimen frankista faxismoaren barruan sartu behar dugun ala ez eztabaidatzen hasi gabe, gutxienez garbi dago osagai faxista sendo bat zeukala, hasiera batean batez ere), baina Frantzian okupazioari esker bakarrik lortu zuen faxismoak boterera iristea, nahiko denbora mugatuan eta baldintza oso berezietan gainera.

### 3.- Porrotaren arrazoiak

Bai Soucy, bai Milzà, bat datoz porrotaren arrazoiak azaltzeko orduan, eta neurri batean bat datoz honetan Remond-en tesiekin. Arrazoi nagusiak hiru lirateke:

- 1) Frantzian ez zegoen benetako arrisku iraultzailea, burgeseria argi eta garbi faxismoaren alde apostu egitera bultza zezakeena, diru-laguntza batzuk gorabehera.
- 2) Krisialdi ekonomikoa sekula ez zen iritsi Alemania edo Italiako mailara.
- 3) Gizartearen tradizio errepublikazale eta demokratikoa gogorregia zen era honetako mugimenduak onartzeko.

#### **Badira beste zenbait arrazoi ere:**

- 1) Polizia eta Armada beti Gobernuaren alde egon ziren.
- 2) Faxismoaren programa ez zen oso diferentea zentruko beste zenbait partiduk burges txikiei eskaintzen

zietenaren aldean: jabetza pribatuaren defentsa, zerga txikiak, komunismo edo sozialismoaren aurkako jarrera, klase-borrokaren aurka ere bai, nor bere indarrez bizitzan aurrera egiteko etika, eta abar.

- 3) Partidu faxisten makaldadea: batek ere ez zuen sekulan lortu indartsu eta boteretsu bezala agertzea iritzi publikoaren aurrean; oso sintomatikoa da ikustea nola, behin baino gehiagotan, kontzentrazio faxistetan poliziarri deitu behar izan zioten komunisten erasoetatik babesteko (hau pentsaezina da Alemanian edo Italian). Aldi berean, ez zegoen buruzagi bakar eta karismatiko bat, eta bai zatiketa etengabeak. Gainera, Alemania eta Italiaganako mirespena ez zen oso onuragarria Frantziako iritzi publikoaren aurrean, aldi berean ultranazionalistatzat agertu nahi zenean.
- 4) Frantzia laikoan, faxista gehienak katolikoak ziren.
- 5) Iritzi publikoa militarismo autoritarioaren aurka eta Errepublikaren alde agertu zen.
- 6) Ondorio orokor bezala, faxismoaren zutaberik sendoenak, hots, burges txikiak, Frantzian ez zuten sekulan faxismoa sostengatu.

### **Egungo eztabaida historio-grafikoari buruzko zenbait ohar**

Atal honetan egingo ditudan komentario laburrek irakurleari

orientazio xume bat eskaintzea dute helburu, eta era berean gai honetaz dudak ikuspegia isladatuko dute.

Remond-en tesiak gairiditutzat eman beharra badago ere bere puntu garrantzitsuenetan, gaur egungo eztabaidak oso antzeko norabidea darama, protagonista diferenteekin baina antzerako problemei buruz, oinarri desberdinen gainean hala ere. Gidari nagusitzat hartu ditugun hiru historialarien (Milzà, Soucy, Sternhell) jarrerak behatzen baditugu, esan beharra dago hirurak azpimarratzen dutela faxismoak Frantzian garrantzi handia izan zuela, Remon-ek ematen diona baino askoz ere handiagoa, baina ez dira bat etortzen garrantzi hori neurtzeko orduan. Konkretuki, Milzà-k Sternhell eta Soucy-ri aurpegiatzen die, nor bere alorrean (hau da, lehenengoa Pentsamenduaren Historian eta bigarrena Historia Politikoan) exageratu egiten dutela, faxismoa eta faxistak ikusiz "tradizionalismoa" edo "eskuin gihartsu"-aren agerpena baino ez dagoen lekuan.

Ene ikusmiran, arazoa bi mailatan aztertu behar da: alde batetik bada fenomeno faxistaren kontzeptualizazio diferente bat, eta bestetik arazo hau zenbait talderi (**Croix-de-Feu** edo **Action Francaiseri** adibidez) faxista adjektiboa erantsi behar zaien ala ez eztabaidatzean konkretatzen da. Noski, argi gera bedi arazoa sinplifikatzen ari naizela eztabaidagai nagusiak nabarmendu asmoz.

Sternhell-engandik abiatuz, bere tesi nagusia faxismoa orotariko pentsamendu-sistema bat bezala

aurkeztea da, kapitalismoaren edo sozialismoaren maila berean, nahiz eta ez zen iritsi hauen mailako formulatzaile sistematikoak izatera. Hori dela eta, bere liburuetan saiatu egiten da faxismoaren pentsamendu-sistemaren deskribapen osoa egiten, baina, eta hau garrantzitsua da, "modu platonikoan", hau da, ideia hutsen analisia eginez, tokian tokiko eta egunean eguneko praktika politikoak eragindako aldaketak edo konponketak albo batera utziz. Bakar-bakarrik ideien sorrera eta bilakaerari buruz egiten dio kasu. Eta bere ikerkuntzatik ondorioztatzen du faxismoa, ideologia gisa, Frantzian jaio zela, ideologo frantsesen eskutik, eta hortik pasatu zela Italia, Alemaniara etab.era. Gainera, 1914erako, faxismoa, ideologia gisa, guztiz eta osorik garatua zegoen. Hortik aurrera, esaten digu, ideologia hori zenbait partidu politikotan gorpuztean, noski, praktika politikoaren eraginez izugarritzko aldaketak eta desbideraketak pairatu zituen, baina ez beste edozein ideologiak baino gehiago, kasurako, sozialismoak. Horregatik, segitzen du esaten Sternhell-ek, ez da batere arraroa faxismoaren agerpenak oso partidu diferentetan aurkitzea, sozialismoarekin gertatzen den bezala. Bere analisia izugarri disdiratia da, baina nere ustez, apur bat arin eta sustraigabea.

Milzà-k egiten dion kritika nagusia hauxe da: ideologia bat bere egoera puruan isolatu nahi izatea okerbide nabarmena da, historiatic kanpo gelditzen bait da eta, beraz, ez da lagungarria; beste hitz batzuekin esan da, historian zehar inork ez du sekulan

ere faxismoa "modu platonikoan" formulatu, hau da, bere testuinguru sozio-politikotik at, eta beraz, Sternhell-ek egiten duena, Milzà-rentzat, eraikuntza intelektual arbitrarioa baino ez da. Gainera, beti ere Milzà-ren ustez, Frantziako kasuan eraikuntza horrek alde guztietan faxistak ikustera eramaten gaitu, demokraziaren kritikoak, inkonformistak edo tradizionalistak baino ez dagoen lekuetan. Irrealak eta sinpletzailea den sistema honen ordez, Milzà-k errealitate historikoaren analisi zuzen eta zehatza proposatzen du, kasu historiko bakoitza urratsez urrats eta ñabardura betean jarraituz. Hemendik ateratzen zaiona sekulako analisi-eredu sofistikatua da (izpiritu "vichysois" delakoa, gogora), Frantziako kasu historiko guztietan aplika daitekeena, baina beti ere kasu bakoitza bere testuinguru historiko konkretuan, eta bere egoera zehatzean aztertzen ahaleginduz. Nere ustez, sofistikatuegia izatea da eredu honi leporatu ahal zaion akatsik handiena.

Eta ziur aski, iritzi berekoa izango da Soucy, zeren eta bere analisisiaz aipa daitekeen punturik nabarmenena bere argitasuna da; Milzà-ren zehaztapen eta ñabardura guztien gaintetik, "faxismo-kutsapena", "sasoiko izpiritua" edo "izpiritu vichysois" bezalako kategorien gaintetik pasatuz, badirudi Soucy-rentzat argi daudela zenbait gauza: faxismoa eskuinaren barruan kokatu behar dugu, goi-burgeseriak finantziatua balizko iraultza baten kontrako tresna bezala; bere ustezko iraultzaletasuna edo jatorri ezkertiarra interes gabeko txatxukeriak dira, arazoa alferrik

nahasteko baino balio ez dutenak; faxismoaren diskurtso soziala demagogia hutsa da, eta indarkeria lotsarik gabe erabiliz edo predikatuz, boterea eskuratzeko ahaleginetan porrot egin zuen, baina hortik ezin da ondorioztatu ez zirela benetako faxistak, ahal zuten guztia egin bait zuten lortzeko. Nahiz eta analisi erakargarria izan, beharbada, Milzà-rena sofistikatuegia zen bezala, hau sinpletzailegia da.

Nere ustez, garbi dago Milzà-ren ikuskera dela osoena, alde batetik kasu bakoitza arretaz aztertzea ahalbidetatzen bait digu eta bestetik eredu orokor bat eskaintzen bait du; argi dago bilakaera intelektual luze eta sakon baten emaitza dela. Baina baditu bere hutsak eta hutsuneak. Lehen hutsa, esana dago, sofistikatuegia izatea da, zehaztu nahiaren poderioz, finean nahiko eredu zehazgabea dela: partidu edo mugimendu bat faxistatzat jotzeko baldintza gehiegi bete behar dira, eta horren ondorioz, finean, beren buruak faxistaberak dira), eta horiek ere, mila zehaztapen eta ñabarduren ondorioz (zehaztu-nahia amaigabea da Milzà-rengan). Milzà-rekin, badirudi batzuetan zuhaitzek ez digutela basoa ikusten uzten.

Eta horretan saiatu da Sternhell: zuhaitz bakoitza arretaz eta artez deskribatzea baino, faxismoaren basoa analizatzea da bere helburua. Horretan datza bere meriturik handiena. Eta hori egiteko, Milzà-ren hutsune handienaz baliatu da: ideologia. Nere ustez, prozesu historiko errealean sakondu nahiaren poderioz, Milzà-k gutxietsi egiten du ideologiaren garrantzia;

ahaztu egiten zaio, adibidez pentsamendu faxistaren sorrerak Europako Historia Intelektualean suposatu zuen berritasuna, edo ahaztu egiten zaio baita ere pertsona bati faxista izateko nahikoa zaiola printzipio ideologiko batzuk atxekitzea (komunista edo liberala izateko printzipio ideologiko batzuk atxekitzea nahikoa den modu berean). Hortik aurrera ere asko zehaztu beharra dagoela nabaria da, baina batak ez luke bestea kendu beharko. Sternhell-ek aurrera atera nahi duen lana horixe da hain zuzen ere, faxismoaren zutabe ideologikoak identifikatzea eta zehaztea. Eta ahalegin horretan formulatu du nire ustez oso garrantzitsua den tesi bat: faxismoaren jatorri ideologikoa Frantzia dagoela. Beharbada gero, kasu historiko bakoitza aztertzean, Milzà-k nahi duen bezala, erlatibizatu egin beharko dugu ideologiaren garrantzia, eta arretaz baloratu ideologia eta praxiaren arteko harremana, eta beste faktore batzuk ere kontutan hartu (oinarri soziala, testuinguru ekonomikoa, gorabehera politikoak...), baina inolaz ere ezin dugu ideologia guztiz baztertu eta ahaztu.

Eta bukatzeko, lehen esan dugun bezala, Milzà-ren antipodetan Soucy aurkitzen dugu; honen analisisen arabera, nahikoa da jakitea mugimendu baten diru-iturriak (goi-burgeseria), helburu politiko benetakoa (iraultzaurkako diktadura) eta eguneroko praxia (eskuadrismoa), faxisten aurrean gaudela esateko, ñabardura guztien gaintetik. Egia esan, ahalegin argigarria da berea, baina apur bat ximplea. Hala ere, oraindik ez du

libururik argitaratu hogeitamar-garreneko hamarkadari buruz, eta beraz, momentuz ezin da jakin bere iritzia zenbait partiduri buruz.

Ondorio garbiren bat ateratzekotan, hauxe proposatuko nuke nik: faxismoa funts handiko fenomenoa izan zen Frantzian, eta ez kasualitatez baizik eta gizarte frantsesean sakon sustraituta

zeuden zenbait joerari esker; hala ere, garbi dago oso faxismo diferentea dela Alemania edo Italiakoaren aldean, agian faxismoaz baino "izpiritu vichyssois"-i buruz hitz egin beharko genukeelarik, Milzà-k proposatzen duen bezala; edonola ere, ez da fenomeno koiunturala Frantzian. Horra hor Le Pen-en arrakastaren arrazoietakoa bat.

---

## Bibliografia

---

BERNSTEIN, S.; *Le 6 février 1934* Paris: Callimard, 1975.

BURRIN, P.; "La France dans le champ magnétique des fascismes" *Le debat* aldizkaria, 32 zbkia., 1984eko azaroa.

MILZA, P.; *Fascisme français: passé et présent* Paris: Flammarion, 1984.

NOLTE, E.; *Le fascisme dans son époque* Paris: Juillard, 1970. (ikus t.I. "L'Action Française")

REMOND, R.; *Les Droites en France* Paris: Aubier, 1982.

SOUCY, R.; *Le fascisme français, 1924-1933* Paris: PUF, 1988.

STERNHELL, Z.; *Ni droite ni gauche: l'idéologie fasciste en France* Paris: Seuil, 1983.

*La naissance de l'idéologie fasciste* Paris: Fayard, 1989.

TOUCHARD, J.; "L'esprit des années 30. Une tentative de renouvellement de la pensée politique française" in *Tendances politiques dans la vie française depuis 1789* Paris: 1960.

WEBER, E.; *L'Action Française* Paris: Stock, 1964.